

## **ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, EUROPAKO GIZARTE FUNTSAREN KUDEAKETAN ETA KONTROLEAN IRUZURAREN AURKAKO NEURRIAK HARTZEARI BURUZ**

Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza –Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 aldirako Europako Gizarte Funtsaren Programa Eragilearen Bitarteko Erakunde Koordinatzailea eta 2014-2020 aldirako Gazte Enplegurako Programaren Bitarteko Erakundea– Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako zuzendaritza bat da.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua –Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 aldirako Europako Gizarte Funtsaren Programa Eragilearen Bitarteko Erakundea– Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomo bat da.

Programazio-aldi honetarako helburu nagusietako bat aipatutako Bitarteko Erakundearen eginkizunen garapenean iruzurraren aurkako politika sendotzea da, betiere bakoitzaren eskuduntzen eremuan.

Horregatik, Bitarteko Erakunde biek adierazi nahi dute erabateko konpromisoa hartzen dutela arau juridiko, etiko eta moralak betetzeari dagokionez estandar gorenak zaintzeko, eta erabat atxikitzen zaizkiela zintzotasun, objektibotasun eta zuzentasunaren printzipio zorrotzeneri, bi erakundeekin harremanak dituen eragile orok edonolako iruzurraren eta ustelkeriaren kontraketat ikus dezan haien jarduna. Bitarteko Erakunde bien zuzendaritza-taldeetako kide guztiek bere egiten dute konpromiso hori.

Bestalde, Bitarteko Erakundeak osatzen dituzten enplegatu publikoek, besteak beste, “interes orokorrak zaindu” behar dituzte, “betiere, Konstituzioari eta gainerako antolamendu juridikoari begiratuta eta haiei lotuta; printzipio hauek oinarri hartuta jardun beharko dute beti: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, isilpeketasuna, zerbitzu publikorako dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultura-ingurunearen eta ingurumenaren sustapena, eta emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua” (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateragina onartzen duena, 52. artikulua).

Politika honen helburua da erakundearen barruan iruzurraren kontrako kultura sustatzea, iruzurrezko zernahi jardura egiteko gogoia kendu eta halakoak prebenitzea eta detektatzea erraztuko duena, eta horrelako kasuak kudeatzeko prozedura eraginkorrak garatu daitezen sustatzea, horretarako.

Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 aldirako EGIF Programa Eragilearen eremuan, bidelagun izango du Lanbide, Bitarteko Erakunde gisa, eta laguntzaile izango ditu onuradunen kudeatzaileak eta arduradunak ere, barne-kontrolerako sistema egoki bat badela ziurtatzeko, zeinek bere erantzukizun-arloaren barruan, eta okerrik gertatuko balitz, neurri zuzentzaileak behar bezainbesteko arretaz ezar daitezen bermatzeko.

Bitarteko Erakundeek aurretiazko faseetan egindako egiaztapenetatik eta kontroletatik abiatuta, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako auditoretza- eta fiskalizazio-kontrolak kontuan hartuta, iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta proportzionatuak jarri dira abian, aurreko aldietan izandako esperientzian eta iruzur-arriskua ebaluatzeko asmoz berriaz egin berri den azterketan oinarrituta.

Hitz batez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak iruzurrarekiko eta ustelkeriarekiko zero tolerantziako politika dute, eta kontrol-sistema sendo bat ezarri dute, bereziki taxutua iruzurrezko egintzak prebenitu eta detektatzeko, ahal den heinean, eta, halakorik gertatuko balitz, haien eragina zuzentzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 28a.



**Sin. Amaia Arteaga Dañobeitia**  
Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria  
Eusko Jaurlaritza



**Sin. Borja Belandia Fradejas**  
Zuzendari nagusia  
Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua

